

PROGRAMA: EKIMEN EKINTZAILEEN SUSTAPENA ENPRESEN FINKAPENA 2024

Xedea	2022ko eta 2023ko ekitaldietako autoenpleguari buruzko dekretuetan babestutako enpresen jarraitutasuna bultzatzea eta haien finkapena indartzea.
Erakunde onuradunak	34/2022 eta 162/2022 Foru Dekretuen kontura "enpresak martxan jartzeko eta sortzeko laguntzak" diru-laguntza esleitu zitzaizen erakundeak.
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:	<p>Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 2023ko uztailaren 29tik 2024ko uztailaren 30era bitartean gauzatzen diren ekintza hauek:</p> <ol style="list-style-type: none">Komunikazio eta marketin arloko plan bat egitea enpresaren jarduerarekin lotuta.Enpresaren lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten digitalizazio-jardueretatik eratorritako gastuak.Enpresa-jarduera hobetzeko prestatuntza-gastuak.Laguntza tekniko espezializatuko zerbitzuak kontratatzearen ondoriozko gastuak, honako helburu hauek dituztenak: enpresaren bideragarritasuna hobetzea, edo merkatuan edo negozioaren garapenean duen kokapena hobetzen laguntzea, produktua, zerbitzua edo prozesua hobetzeko berrikuntza, nazioartekotzearen bideragarritasuna, erantzukizun soziala edo ingurumen-eragina. <p>Diru-laguntza honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira administrazio-kudeaketako eta zerga-, lan-, finantza- eta kontabilitate-aholkularitzako zerbitzu arruntak, zergak, tasak, prezio publikoak eta inbertsioak.</p>
Diru-laguntzaren zenbatekoa	<ol style="list-style-type: none">Entitate onuradunak lor dezakeen gehieneko dirulaguntza 2.000 eurokoa izango da.Diruz lagun daitezkeen ekintzak 2023ko uztailaren 29tik 2024ko uztailaren 30era bitartean gauzatu beharko dira.
Arautegia	<p>Bizkaiko Foru Aldundiaren 217/2023 FORU DEKRETUA, abenduaren 28koa.. Laguntzak emateko, norgehiagoka araubidea erabiliko da.</p>
Epeak	<p>Ekintzak egiteko epeak: Diru-laguntza jasotzen duten ekintzak 2023ko uztailaren 29tik 2024ko uztailaren 30era egin beharko dira</p> <p>Eskabideak aurkezteko epea eta modua Eskabideak aurkezteko epea 2024ko martxoaren 11n hasiko da, 09:00etan, eta 2024ko uztailaren 30ean amaituko da, 13:30etan. Eskabideak Internet bidez aurkeztu beharko dira, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtuala erabiliz. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartu behar da (www.ebizkaia.eus), eta bertan Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko sailaren bulego birtuala aukeratu.</p>